

## HITZAURRE GISA

**Jose Luis Alvarez Enparantza**  
«Txillardegia»

Soziolinguistikaren izen ospetsuenetakoa da Charles Fergusonena. Eta are ospetsuagoa agian 1959an «Word» aldizkarian argitara eman zuen «Diglossia» artikulua. Ideiak, eta hitza bera, lehenago ere E. Psicharik lehenago erabiliak izan baziren ere, Fergusonen zor baitzaio, zalantzarik gabe, hedatzea eta herrikoitzea.

Hots, artikulua hori hamaika hizkuntzataraz itzulita ere, euskaraz ez zegoen; eta Unibertsitatean eta euskal soziolinguisten artean erdarazko itzulpenez baliatu izan gara gaur arte.

Orain, berriz, euskal itzulpen hau BAT-ek eskainiz, hutsune nabarmen bat konpondu nahi izan dugu.

«Diglosia» hitzaren polisemiak, nahaspila galanta sortu du jadanik. Eta jatorrizko lan hau bee iturrian bertan eta euskaraz ezagutzea, mesedegarri izan daiteke.

Era berean, Soziolinguistika euskaraz ikasten dutenei, zerbitzu bat egiten diegula iruditzen zaigu. Testu hau askotan aipatzen baita; baina gaztelaniaz lantzeak, eta areago ingelesez, bigarren esfortzu bat eskatzen baitio euskaldun ikasleari.

Beste iruzkinik ez dugu hemen egingo. Fergusonen idazlan honek ekarri zuen «iraultzatxo» ongi ezaguna baita. Euskaltzaleon artean batez ere.

Beste maila eta jatorri bateko lana da Lourdes Oñederra UPVko hizkuntzalari

ezagunaren «Ahoskera eta arauak. Arauak eta ahoskera» izenpuruko izkribua. Ahoskera Batuari buruzko Batzordeak 1994 eta 1995 urteetan barrena egindako lanen kudeatzailerik izanik, ongi ezagutu du Euskara Batuaren alderdi fonologiko hori.

Ohar mamitsuz mukurru betea, euskaltzale guztiek izan dezakete lerro argi horietan, gure hizkuntza gaurkotzeko eta eguneratzeko ahaleginetan, ideiak borobiltzeko eta funtsatzeko zimentarri egokiak.

«Mogitzen ez den haurra hila dela» gogorazten digu egileak; eta era berean, berezko dutela hizkuntzak ere, bizirik dirauten artean, denboran eta espazioan barrena etengabe aldatuz joatea.

Euskara ere, hortaz, biziko bada, aldatuz egingo du aurrera. Eta euskararen aldatu-behar hori oztopotzen saiatzeak, kalte besterik ez duela ekarriko orotarazten digu; eta, oren buru, alfer lana izango dela.

Egia borobilak, dudarik gabe.

Errazago onartzen bide dugu gaztelania aldatu dela sinestea, adibidez, (Cervantes-en hizkera motari erreparatzea aski); euskara ere Axularrengandik gugana aldatu dela aitortzea baino.

Are ireskaitzago egiten bide zaie batzuei, ordea, ondoko urteetan ere aldatu egingo dela, eta guk jaso dugun euskara honetatik urrun egongo dela alderdi askotatik ontzat eta normaltzat hartzea.

Begien aurrean, eta euskararen artean batez ere, horrelako berrikuntza-arbuioa dagoela ezin uka daiteke.

Eta hala ere, eta euskarak aspaldi honetan jasaten duen egoera ezagututa, euskaltzale batzuen kezka nekez jo daiteke txotxolokeria funsgabetzat. Gaztelaniaren eragin hazkorra Hegoaldean (eta frantsesarena Iparraldean) begi-bistan daude.

Euskararen «eboluzio»tzat hartzen diren interferentzi-mordo nabarmenak, benetako «gramatika» truke orokorrak dira (hitza oraingoan Chomsky-ren adierarik zabalenean hartuz). Eta hain zuzen Lourdes Oñederrak berak maisuki aztertuta duen «Language death» delakoaren seinale nabarmenak.

Normala da, beraz, euskararen herio-ikur batzuk hortxe aurkitzean, zuzen ala oker (eta oker askotan!), euskara maite dutenek «benetako» euskarari eutsi nahi izatea.

Ohar bera egin daiteke, are segurtasun handiagoaz, Fonologiaren mailan gaur geure artean ditugun erdalkuntza sailaren aurrean zenbatengan hedatu den kezka. Alde batetik, eta tentuz jokatzat gero, osasungarri gerta daiteke.

«Ahoskera ezin daiteke erabat araupetu», irakurtzen dugu. Guztiz egia.

Baina «native speaker» famatu hori gurean praktikan ia-ia erabat suntsitua denez, eta «jatorrizko» irizpide kutsugabe hori arras lardaskatua dagoenez, bidezkoa da (kontu handiz eta oso zuhurki, noski) euskararen jatortasuna, edo «kalitate» (edo-ta «euskaltasuna», esango nuke nik) bilatzen duenaren

zerbitzutan, zedarrri seguru batzuk ipintzea.

Gutziz egoki eta beharrezkoak, bukatzeko «bulgarismoa»ren kontra ultra-herriko i agertu nahi duten batzuen kontra Lourdesek egindako oharrak.

Hiru ikertzaileen eskutik etorritako lanak, berriz (Nekane Jausori, Iñaki Martinez de Luna eta Andres Davilaren «Gazte donostiarren hizkuntzarekiko harremanak» izenekoa), lan garrantzitsua da. Hauxe hasteko. Eta ez da alderdi on txikia honelako lanetan.

Oso adin-multzo adierazgarria da hautatutakoa (16 eta 19 urteen arteko gazteena), eta oso hiri adierazgarria ikertua: Donostia.

Ikerkuntza lan hori nekez labur bil liteke lerro gutxitara, bere funtsezko aberastasuna murriztu gabe. Lan hori patxaraz irakurri behar da, patxaraz edoski, eta patxaraz irakatsi. Ikastekorik eta kontutan hartzekorik asko baitago.

Jarrerren sailkapen hirukuna oso adierazgarria da; eta are adierazgarriagoa, agian, hiru jarrera eredu kardinal horien eta eskola-ereduen artean aurkitzen den lotura hertsia.

Kontrako diskurtsoa, axologabekeriaren diskurtsoa eta euskaltzaletasunarena, oso ongi definituta daude. Baita jatorri funtzioa, transmisioarena, erreferentziazkoa, eta mitikoa.

Hauekin guztiekin esparru pribatua eta publikoa nola kokatzen eta banatzen diren azaltzen zaigu, eta ondorio ezin mamitsuagoak ateratzen. Era berean, batzutan gainditutaz jaso genuen eskema bikun hura: hiria, erdara vs baserria, euskara alegia, uste baino biziago agertzen zaigu hiru ikertzaileen izkribuan.

Erabilpena arazo pertsonalatzat hartzea, euskararen etorkizunarekiko hostasun «zientifikoa» agertzea, euskaltzaileen multzoa «tribu radical» bataiatzea, eta beste mila xehetasunetan, gurean dagoen kinka-giroaren seinale agertzen da gure autore hauen lanean.

Oso azpimarragarria ere, askotan ilunpean utzi ohi delako, euskararen «corpus»aren jabetzaren garrantzia nabarmen jartzea.

Oso borondate fin eta tinkoa izanik ere, hizkuntza bat ezin daiteke erabil gaitasun eta «konfiantza» maila minimo batetik behera: «Yo ya chapurreo un poco», «ni piskat dakit bakarrik», «se me ha olvidado, perdona: cómo se dice cenar en euskera», eta abar luze bat, gizarte-gezur ezagun baten ezaugarri tristeak dira.

Artikulugileek ongi diotenez; «euskara onez egiten ez dutenak, ez daude unibertso euskaldunean murgilduta» (alegia, eta mutuak ez direnez, «erdal unibertsoan murgilduta bizi dira»).

Ezaguera maila minimo bat behar da erabilpena bultzatu ahal izateko.

Oso aproposak, BAT honetantxe ere, eta Fishmanen iritziak gogoraziz, etxeari eta inguru hurbilari gaur hizkuntzaren erabilpenean ematen zaien garrantzia. Koadrilen mintza-hizkerak pisu handia du geroari buruz. Eskolaren baitan dena uztea, erokeria litzateke.

Madriletik A eredia bultzatu nahi izateak oinarri sendoa du. Gure arteko inuxente batzuek besterik uste badute ere.

Ohartxo bakar bat, agian: lanean «politika» deitzen dena, «nazio-projektua» dela. Eta honela esatea zehatzagoa litzatekeela. Nori egiten dio kalte «euskal nazioaren projektua» sintagmak?

Lerro xume batzuk bukatzeko, Jose Manuel Odriozola gure lankideak Jesús Tusón-en liburuaz egin digun aurkezpenaz (ikus Los Prejuicios lingüísticos liburuaz).

Liburu hau 16 aldiz irten da kalera jatorrizko hizkuntzaz (katalanez, «Mal de llengues»), eta 4 aldiz galizieraz. Jende askok irakurri ahal du Euskal Herrian?

Hizkuntzei buruz dauden aurriritziak lau mailatan sailkatu ditu autoreak; errugabeak, kulturalak eta geo-politikoak. Eta ondorio sakon bat azpimarratu: hizkuntza arrotzekiko mesprexuetan edo gorrotoetan, arrazakeria datzala funtsean.

Odriozolak ez du ulertzen «hizkuntzaren neutrotasuna» zer den. Eta guk ere ez. Hizkuntza «instrumento de silencio» bilakatzen baita askotan.

Beste ohar mamitsu bat: hiztunak ez direla oso errudun, gizarte egitura orokorrak baizik. Hizkuntza berez da kolektiboa eta politikoa. Eta gatazkatsua, beraz.

Oso interesgarriak, eta oso gutxitan ezagunak eta aipatuak, Dante-ren beraren aurriritzi harrigarriak.

Hizkuntza «masculino» eta «femenino» horiei buruzko oharrek, gu behintzat... Erronkari-ra eraman gaituzte. Ezaguna baita erronkariarrek, Dante-ren iritziak ezagutu ez arren, eta berak oso azentu toniko azkarraz mintzo, zaraitzarrei buruz «hablan como las mujeres» esaten omen baitzuten. «Nihil novum sub sole»...

Are sineskaitzagoak, bukatzeko, André Meillet handiak hizkuntzei buruz erakusten duen ezjakintzaz.

Baina honetaraz gero, artikuluetara jotzea onena.